

AMAÑA AUZOKO BILERA (Amañako parrokia 2012/11/13)

<p>Wenceslao Orbea kaleko igogailuaren inguruan, auzoko bizilagunek eraturako Amaña elkartearen eta udalaren arteko negoziazioak nola dauden galdetu dute.</p>	<p>Alkatetza</p>	<p>El Ayuntamiento ha dispuesto 357.000 euros en los presupuestos de 2013 para hacer frente a la compensación a los vecinos propietarios del ascensor. Tras el acuerdo, el Ayuntamiento cederá el ascensor a una nueva asociación vecinal que se constituya al efecto y de la que podrán formar parte todos los vecinos interesados. Se espera que la operación pueda cerrarse antes de que finalice el año. Udalak 357.000 euro ipini ditu 2013ko aurrekontutan igogailuen jabe diren bizilagunei egin beharreko ordainketari aurre egiteko. Akordiora iritsi ostean, Udalak xede horretarako eraturako den bizilagun elkarteari utziko dio igogailua, elkarte horretan interesa duten bizilagun guztiek parte hartu ahal izango dutelarik. Operazioa urtea amaitu aurretik itxiko dela aurreikusten da.</p>
<p>Wenceslao Orbea kaletik saihebidera zuzenean sartzeko aukera aztertzea eskatu da.</p>	<p>Obrak</p>	<p>Diputazioaren aldetik ez da Amaña auzoarentzat beste sarrerarik aurreikusten</p>
<p>Tiburtzio Anitua kaleko 19aren ostean dauden eraikuntza-materialak erretiratzeko eskatu da, kale bereko 20-b-ren parkeko obrarenak.</p>	<p>Obrak</p>	<p>Enpresa eraikitzaileari metaturik zeuzkan materialak kentzeko eskatu zitzaion eta hala egin zuten</p>
<p>Amaña kaletik Wenceslao Orbea kalerako irisgarritasuna hobetzea eskatu da</p>	<p>Obrak</p>	<p>Wenceslao Orbeako igogailua publikoa izatera pasatzen denean sarbidea hobetuko da</p>
<p>Trenbide gainean dagoen pasealekua Tiburtzio Anitua kaleko 21ean dagoen pegorara emango lukeen igogailu bat jartzeko aukera aztertzea eskatu da.</p>	<p>Obrak</p>	<p>Aurten trenbide gaineko pasealekua eta Tiburtzio Anitua kalea (21 zenbakiren parean) lotuko dituen igogailu komunitarioaren proiektuaren erredakzioa kontratatuko da</p>
<p>Tiburtzio Anitua kaleko 9aren parean pasealekura ematen duten eskaierak kentzeko eta arrapala egiteko eskatu da.</p>	<p>Obrak</p>	<p>Oinezkoen pasaguneko lanekin batera egin da</p>
<p>Tiburtzio Anitua kaleko 21aren eta garajeen artean dagoen oinezkoen pasabidea txukuntzea eskatu da.</p>	<p>Obrak</p>	<p>Urtea amaitu baino lehen oinezkoen pasabide garai bat eraikiko da 20 zenbakiaren parean</p>
<p>Torrekua kalearekin elkartzeko pasabidearen hanketako dilatazio-junturek ateratzen duten zarata dela eta, kexak jaso dira.</p>	<p>Obrak</p>	<p>Trenbidea bitan banatzeko lanak direla eta pasabide hau eraitsi egin dute</p>

AMAÑA AUZOKO BILERA (Amañako parrokia 2012/11/13)

Karlos Elgezua kaleko 2aren parean espaloia beheratzea eskatu da, Karlos Elgezua eta Amaña kalea elkartzen duen kalezuloaren sarreran amaitzen dena.	Obrak	Urtea amaitu baino lehen oinezkoen pasabide garai bat eraikiko da 20 zenbakiaren parean
Obrak amaitu ondoren, Tiburtzio Anitua kaleko 20-bn dauden garaje batzuetako itoginak eta hezetasunak direla eta kexak jaso dira.	Obrak	Urbanizazio lanen enpresa eraikitzaileari akatsak zuzentzeko emandako epea behin agortuta euren konponketa aurrera eraman ez zutelaik, beste enpresa bat kontratatu zen ejekuzio subsidiario bitartez konponketak egin ditzan.
Tiburtzio Anitua kaleko 32tik semafororaino errepidea asfaltatzeko eskaera egin da.	Obrak	2013ko Asfaltatze Planean sartu zen eta abuztuan asfaltatu zen
Grúas Katilluren pareko espaloia beheratzea eskatu da	Obrak	Abendurako egingo da
Trenbidea bitan banatzeko obrekin, Amañara oinez joateko aldaketak zeintzuk izango diren galdetu dute.	Obrak	Amañako bizilagunekin bilera bat egin zen proiektua azaltzeko. Proiektua Udaletxean eskauragarri dago kontsultatu nahi duenarentzat.
Parrokiatik Amaña ikastetxera joateko zailtasun handiak daudela adierazi dute. Alde batetik, espaloi batzuk beheratzeke daude; eskailera asko daude, eta beste zati batzuetan ez dago espaloirik.	Obrak	Aukera ezberdinen analisia egiten duen azterketa bat egin da. Mailaketarik gabeko beste espaloi bat eginaz zertxobait hobe daiteke baina honek aparkalekuak kentzea suposatuko luke.
Wenceslao Orbea 7-9ko igogailua jartzea eskertu dute, eta, aldi berean, kale horretako 15. eta 17. pegoren irisgarritasuna hobetzea eskatu dute.	Obrak	13 eta 15 pegoretara joango den arrapala bat egingo da urtea amaitu aurretik.
Auzoko alde batzuetan txakur kakak egoten direla eta, kexak sartu dituzte. Txakurrak dituztenendako zerga bat sortzea eskatu dute	Udaltzaingoa	Animalien jabetzari dagokion udal-ordenantza betetzen ez duen orori izunak jartzeko agindua dauka Udaltzaingoa. Udalak ez du animalien jabetzaren gaineko zergarik sortzeko asmorik.
Saihesbidea zabaldu zenetik Karlos Elgezua kaleko 6tik behera aparkatzerik ez dagoenez, auzoko beste lekuren batean beste aparkaleku berri batzuk egitea eskatu dute	Udaltzaingoa	Udala beti gertu dago aparkaleku berrien proposamenak aztertzeko baldin eta mugikortasunaren aldetik bideragarriak badira eta oinezkoen segurtasuna arriskuan jartzen ez badute.

AMAÑA AUZOKO BILERA (Amañako parrokia 2012/11/13)

<p>Amaña auzoaren hasieran umeendako dauden haur-jolasen egoera ikusita, kezkatuta agertu da auzoko bat. Amañako jaiak igaro ondoren, umeendako jolasak berriro jartzen larregi tardatzen dela azaldu du</p>	<p align="center">Zerbitzuak</p>	<p>Azken ediziotan jasatzen ari garen arazoa zera da: Amañako Jaien komisiokoek, bigada jolasak erretiratzera joan aurretik, ainguralekuen torlojuak kentzen dituzte jolasak eurek erretiratzeko. Honek, kalte ekonomikoaz gain, denbora galtzea dakar jokuak muntatzaileak berak ipini behar dituelako bere tokian. Edozein modutan, haur-jolas hauek pedro Celaya parkera eraman behar dira, xede hortarako parkeaan moldaketa lanak egiten ari direlarik.</p>
<p>Wenceslao Orbea kaleko 22an baranda jartzeko eskaera egin dute, Mirasol kalera ematen duen bidearen hasieran (Legarre 10-bis).</p>	<p align="center">Zerbitzuak</p>	<p>Baranda hori 2013ko uztailean jarri zen</p>
<p>Bustinduitarren kaleko 5aren parean dauden sasiak eta sastraka garbitzea eskatu da</p>	<p align="center">Zerbitzuak</p>	<p>Irailean enplegua sustatzeko pertsonala lanean hasi zen eta sasiok hile horren bukaeran garbitu ziren.</p>
<p>Amañan, trenbide ganean dagoen pasealekuko lorontziak pintatzea eta txukuntzea eskatu dute</p>	<p align="center">Zerbitzuak</p>	<p>Eskaria Mankomunitateari helarazi zitzaion eta zonaldea, lorontziak barne, presiopeko uraz garbitu zuen</p>
<p>Tiburtzio Anitua kaleko 31n dauden edukiontziak lekuz aldatzeko aukerarik dagoen galdetu du, zaborrak galtzadatik bota behar izatea arriskutsua delako.</p>	<p align="center">Zerbitzuak</p>	<p>Edukiontziak eskumako aldean kokaturik daude zabor bilketa egiten duen kamioia operazioa eskumatik egiteko prestaturik dagoelako. Momentuz ez da aurreikusten aldaketarik egingo denik.</p>
<p>Karlos Elgezua kaleko 8aren aldamenean dagoen bidean zer edo zer egitea eskatu dute, lurra gastatuta egotera labana delako.</p>	<p align="center">Zerbitzuak</p>	<p>Presiopeko ura botatzen duen makinarekin garbitu zen itsaspena har zezan. Gainera, belarrek bidea har ez dezaten, eskinetan tratamendu belar-hiltzaile bat ematen da.</p>
<p>Ubitxa eta Urki lotzen dituzten eskaileran garbitzea eskatzen da, sasiak daude.</p>	<p align="center">Zerbitzuak</p>	<p>Esponda hauetan sasiak kentzeko lanak abenduan egin ziren. Ordutik hona ez dira berriz egin lan hauek lana sustatzeko pertsonalak egiten dituelako eta irailaren 9an hasi dira lanean, markatutako lehentasunak kontuan hartuta.</p>